

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik, gure enpresan, nahi dugun produktuaren diseinua egingo dugu, eta ondoren produktua Txinako enpresa batek fabrikatuko du eta guk haiei ordainduko diegu. Lehen hilabeteetan, kolore eta diseinu ezberdineko 75 bizikleta egingo ditugu proba moduan eta etekinetan baliatuko gara ondoren gehiago egiteko. Bezero bakoitzak aukeratuko du nolakoa nahi duen bere bizikleta. Bezeroei gure produktua etxera eramango diegu, beraiek jarritako helbidera hain zuzen ere. Arazo bat balego gure telefono zenbakia dutenez, deitu besterik ez dute egin beharko eta guk arazoari aurre egiten lagunduko diegu bezeroei. Arazoa fabrikarena balitz, Txinara bialduko genuke bizikleta baina disenuaren arazoa balitz guk konponduko genuke. Web-orrialdea gure esku dago, guk egingo dugu eta guk eramango dugu aurrera promozio ezberdinak eta aukera ezberdinak bertan ezarriz. Gure lokalean edukiko ditugun ordenagialuetatik kontrolatuko dugu web-orrialdea. Guk egingo ditugun atalak produktu honen diseinua, publizitatea, garraioa, kostuaren eta diruaren antolaketa eta bezeroekiko harremanak izango dira. Gu produktua garraiatzeaz arduratzen den enpresarekin kontaktuan jarri behar direnak izan arren, gero enpresa hau izango da garraiatzeaz arduratuko dena. Bizikletaren manufaktura, berriz, Txinako fabrikak egingo du, eta bere esku utziko dugu produktua sortzeko prozesu guztia. Nagusitasuna eta garrantzia, noski, bizikletak egiteari emango diogu. Horregatik, irabazien zati handi bat fabrikara zuzenduko dugu. Baina hori egin baino lehen, garrantzi handia eman beharra zaio ordenagailuz egingo den lanari. Izan ere, bertan egingo dira gero erosiko ditugun bizikleten diseinuak.